

## XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

4857

*EBAZPENA, 2012ko urriaren 11koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena. Horren bidez onartu eta agindua ematen da Gobernu Kontseiluak 2012ko irailaren 27ko deialdian aurkeztutako sailen arautegiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.*

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak ikastegientzako oinarrizko arautegia onartu zuen 2011ko abenduaren 22ko Erabakiaz, Gobernu Kontseiluaren 2011ko ekainaren 23an onetsitako garapen arautegia berrikusteko egutegia beterik.

Arautegi markoa oinarrizko arautegi gisa sortua da eta sailek horren gaineko alderdien inguruan arautu beharrekoaz erabaki dezakete, modu horretara, zeinek bere antolamendu autonomia bermatuz.

Sailen Oinarrizko Arautegiaren hirugarren xedapen iragankorrek sei hilabeteko epea ematen zuen, indarrean sartu zenetik aurrera, sailek beren arautegiak beste hartan adierazitakora egokitu zezaten.

Aipatutako sailek, goiko arauari helduta, onartu egin dituzte kasuan kasuko saileko kontseiluan arautegi markora egindako egokitzapenak.

Idazkari nagusiak, egiaztatuta arautegiek behar adina aldeko txosten dituztela, eta, 2012ko irailaren 27ko bilkuran aurkeztutakoan, Gobernu Kontseiluari berariazko eskaerarik ez zaiola aurkeztu, eta Sailen Oinarrizko Arautegiaren 4.3 artikuluan jasotako eskuordetzearekin bat etorrita, honakoa

### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Sail hauen arautegiak onartzea:

- Arkitektura.
- Politika eta Administrazio Zientzia.
- Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika.
- Ekonomia Aplikatua I.
- Ekonomia Aplikatua II.
- Ekonomia Aplikatua III.
- Eskultura.
- Medikuntza eta Kirurgia Espezialitatea.
- Ikasketa Klasikoak.
- Fisika Teorikoa.

2012ko azaroaren 5a, astelehena

- Inmunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia.
- Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa.
- Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa.
- Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak.
- Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia.
- Kimika Organikoa II.
- Soziologia II.

Bigarrena.– Agindua ematea arautegiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Hirugarrena.– Erabakiaren lehenengo puntuan aipatutako sailen arautegiak indarrean sartuko dira argitaratu eta hurrengo egunean.

Leioa, 2012ko urriaren 11.

(Eskuordetuta, 2012ko otsailaren 1eko EHAA).

Idazkari nagusia,  
EVA FERREIRA GARCÍA.

## ERANSKINA

## UPV/EHUKO ARKITEKTURA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1 artikulua zehaztapena.

1.– Arkitektura sailaren egoitza administratiboa Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoan dago (Oñati Plaza 2, 20018 Donostia).

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10.1 artikulua zehaztapena.

1.– Hauek izango dira Saileko Kontseiluaren osakideak: zuzendaria, idazkaria, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiak eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiak. Arkitektura Sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileek ordezkari bat izango dute talde horretako bost kideko. Aipatutakoez gain, ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bik eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat osatuko dute kontseilua.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko II. atalaren zehaztapena.

Arkitektura Sailak batzorde iraunkorra izango du, eta Sailen Oinarrizko Arautegiak II. atalean zehaztutakoari jarraituta arautuko da.

5. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 19.1 artikulua zehaztapena.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Deialdi bion artean, hamabost minutuko tarte egin behar da. Nolanahi ere, organoa balioz eratzeko, ezinbestekoa izango da organoko burua eta idazkaria bileran egotea edo, bestela, beren ordezkariak.

6. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 21.4 artikulua zehaztapena.

4.– Hauteskundeetan izan ezik, onartu egiten da botoa eskuordetzeko aukera. Boto eskuordetzak idatziz jaso behar dira, eta bilerako aktari erantsi. Organoko buruari posta elektronikoz jakinarazi behar zaio botoa eskuordetzeko asmoa, eta nori eskuordetuko zaion botoa.

7. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 23.2 artikulua zehaztapena.

2.– Erabakiak hiru egun balioduneko epean argitaratu behar dira beranduen jota, eta datuak babesteko legeria errespetaturik betiere. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin behar dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxienez hilabete bat egongo direla ikusgai. Erabakiak Idazkaritzako egoitzaren iragarki oholean argitaratuko dira eta kide anitzeko organoko partidei posta elektronikoen bidez bidaliko zaie.

8. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 26.3 artikulua zehaztapena.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da, eta gehienez bi agintaldi beteko ditu segidan.

9. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluko edo Batzorde Iraunkorreko titularra kanpoan edo gaixorik egon eta, oro har, horretarako justifikatutako arrazoiak daudenean, hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez-

hautetsiak bete dezake haren tokia. Horretarako, ez agertzeko arrazoiak egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira saileko Idazkaritzan, kide anitzeko organoaren bilera egin baino 48 ordu lehenago gutxienez.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu bitartean, bigarren zikloko ikasleek Saileko Kontseiluan dituzten ordezkariak era honetara banatuko dira: bat, master ofizialetako ikasleen ordezkaria izango da; eta bestea, antzinako ikasketetako bigarren zikloko ikasleen ordezkaria, Ikasleen Kontseiluak aukeratua.

## POLITIKA ETA ADMINISTRAZIO ZIENTZIA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1 artikularen zehaztapena.

1.– Politika eta Administrazio Zientzia sailaren administrazio egoitza Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean dago (Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa, Bizkaia).

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10.1 artikularen zehaztapena.

1.– Hauek izango dira Saileko Kontseiluaren osakideak: zuzendaria, idazkaria, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiak eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiak. Politika eta Administrazio Zientzia Sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileek ordezkari bat izango dute talde horretako hiru kideko edo zatikiko.

Aipatutakoez gain, Saileko Kontseiluan ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bat egongo da, xedapen iragankorrean jasotakoarekin bat, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikularen zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 18.2 artikularen zehaztapena.

2.– Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute, beren eginkizunak aurrera eramateko, saileko idazkaritzan dauden dokumentuak eta informazioa eskatu eta eskuratzeko, alde zuzenetik eskari idatzia eginda, paperean edo posta elektronikoz, idazkari akademikoari. Sailak haren esku jarriko du dokumentazioa, gehienez ere hamabost (15) eguneko epean, saileko Idazkaritzan.

5. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 26.3 artikularen zehaztapena.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da. Gehienez bi agintaldi bete ahal izango ditu segidan zuzendariak.

6. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikularen zehaztapena.

Saileko Kontseiluan kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, gehienera ere zazpi eguneko epean, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontaktzen hasita.

7. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsia izan ahalko da haren behin-behineko ordezkoa; horretarako, arrazoiak egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira saileko zuzendaritzan, kide anitzeko organoaren bilera baino gutxien dela 72 ordu lehenago.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, bi ordezkari izango dira: bata masterretakoa eta bestea lizentziaturaren bigarren ziklokoa (azken hau ikasleen kontseiluak hautatua). Ikasketok behin desagertuta, masterretako ikasleen ordezkari bat izango dute.

## UPV/EHUKO HIZKUNTZAREN ETA LITERATURAREN DIDAKTIKA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika sailaren egoitza administratiboa Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan dago (Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa, Bizkaia).

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 8 artikulua zehaztapena.

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailak hiru sail atal ditu: Honakoak dira:

a) Gipuzkoako Campuseko Sail Atala –Gipuzkoan dauden ikastegiak biltzen dituena–, egoitza Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskolan duena.

b) Bizkaiko Campuseko Sail Atala –Bizkaian dauden ikastegiak biltzen dituena–, egoitza Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan duena.

c) Arabako Campuseko Sail Atala –Arabian dauden ikastegiak biltzen dituena–, egoitza Vitoria-Gasteizko Irakasleen Unibertsitatea Eskolan duena.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko II. atalaren zehaztapena.

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika Sailak batzorde iraunkorra izango du, eta Sailen Oinarrizko Arautegiak II. atalean zehaztutakoari jarraituta arautuko da.

5. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 21.4. artikulua zehaztapena.

4.– Hauteskundeei izan ezik, onartu egiten da botoa eskuordetzeko aukera. Boto eskuordetzak idatziz jaso behar dira, eta bilerako aktari erantsi. Organoko buruari posta elektronikoz jakinarazi beharko zaio botoa eskuordetzeko asmoa, eta nori eskuordetuko zaion botoa.

6. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluan edo Batzorde Iraunkorrean kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, gehienera ere 15 eguneko epean, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

7. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluko edo Batzorde Iraunkorreko titularra kanpoan edo gaixorik egon eta, oro har, horretarako justifikatutako arrazoiak daudenean, hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak bete dezake haren tokia. Horretarako, ez agertzeko arrazoiak egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira saileko Idazkaritzan, kide anitzeko organoaren bilera egin baino 48 ordu lehenago gutxienez.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu bitartean, bigarren zikloko ikasleek Saileko Kontseiluan dituzten ordezkariak era honetara banatuko dira: bat, master ofizialetako ikasleen ordezkaria izango da; eta bestea, antzinako ikasketetako bigarren zikloko ikasleen ordezkaria, Ikasleen Kontseiluak aukeratua.

## UPV/EHUKO EKONOMIA APLIKATUA I SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1 artikulua zehaztapena.

1.– Ekonomia Aplikatua I Sailak Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean dauka egoitza (Agirre lehendakariaren etorbidea, 83-48015 Bilbao).

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 8. artikulua zehaztapena.

Ekonomia Aplikatua I Sailak hiru sail atal izango ditu:

a) Arabako Campuseko Sail Atala, egoitza Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan izango duena. Sail atal horretakoak izango dira aipatutako campuseko ikastegiei atxikitako Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle guztiak.

b) Bizkaiko Campuseko Sail Atala, egoitza Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean izango duena. Sail atal horretakoak izango dira aipatutako campuseko ikastegiei atxikitako Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle guztiak.

c) Gipuzkoako Campuseko Sail Atala, egoitza Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolan izango duena. Sail atal horretakoak izango dira aipatutako campuseko ikastegiei atxikitako Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle guztiak.

3. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10.1 artikulua zehaztapena.

1.– Hauek izango dira Saileko Kontseiluaren osakideak: zuzendaria, idazkaria eta sailari atxikitako irakasle eta ikertzaile guztiak.

Aipatutakoez gain, ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bik eta administrazio eta zerbitzuetako langile guztiek osatuko dute kontseilua.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10.5 artikulua zehaztapena.

5.– Masterretako ikasleen ordezkaria saileko zuzendariak deituta bi urterik behin, azaroaren 15etik abenduaren 15era bitartean egingo den bileran aukeratuko da. Bilera horretara saileko masterretako programetan matrikulatutako ikasle guztiei deituko zaie. Horretarako, bilerara deitu beharreko ikasleen errola eskatuko dio saileko zuzendariak hala dagokion zerbitzuari.

5. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluen zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde aurretik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

6. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 13. artikuluen zehaztapena.

Hauek izango dira Batzorde Iraunkorraren osakideak: zuzendaria, idazkaria, sail ataletako koordinatzaileak eta irakasle eta ikertzaileen bederatzi ordezkari. Sail ataleko koordinatzaileak ez dira hartuko kontuan kopuru horretarako.

Aipatutakoez gain, Batzorde Iraunkorreko kide izango dira ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat, bata zein bestea kontseiluko kideen artean hautatuak.

Batzorde Iraunkorreko ordezkariak Sailen Oinarrizko Arautegian adierazitako moduan aukeratuko dira, eta ordezkari izateari utzi beharko diote arautegi horretan araututako arrazoiren bat gertatzen denean.

7. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 14.1 artikuluen zehaztapena.

Batzorde Iraunkorrek beteko ditu, alde batetik, kontseiluaren arautegiari jarraituz eskuordetuta izango dituen eginkizunak, eta, bestetik, kontseiluak une jakinetan eskuordetuko dizkionak.

Honako hauek dagozkie Batzorde Iraunkorrari:

a) Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta egon daitezkeen aldaketak esleitzea, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako indarreko arautegiari jarraiki.

b) Irakasgaien oinarrizko programak ezartzea, kasuan kasuko ikasketa planaren barruan.

c) Masterreko, doktoregoko eta gainerako ikasketetako (unibertsitateko berezko tituluetako ikasketak izan edo ez) eskaintzak proposatzea.

d) Doktorego tesiak ebaluatu behar dituzten pertsonak izendatzeko proposamenak onartzea, legeak baimentzen dituen baldintzetan, bai eta bestelako epaimahaietako kideen izendapenak onartzea ere.

e) Irakasleen eta ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.

f) Plaza berriak eskatzea eta saileko langileen lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.

g) Irakasleen lanari buruzko txosten arrazoituak egitea, irakaskuntza merezimenduak eskuratu eta kontratuak berritze aldera.

h) Bere eskumenen esparruan, eta Gobernu Kontseiluak onartutako arautegiarekin bat, Estatutuetako 97. artikuluan zehaztutako kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren edo artearen alorreko lanak egiteko.

i) Venia docendi emateari buruzko aurretiko txostena egitea.

j) Beharrezkoa izanez gero, sailaren gune fisikoak esleitzeko irizpideak onartzea.

8. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 18.2 artikuluen zehaztapena.

2.– Kide anitzeko organoko kideek eskubidea dute, beren eginkizunak aurrera eramateko, saileko idazkaritzan dauden dokumentuak eta informazioa eskatu eta eskuratzeko, alde aurretik eskari

idatzia eginda idazkari administratiboari, betiere datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta. Saileko buruak zazpi eguneko epean emango du eskatutako informazioa, eskaria jasotzen denetik kontatzen hasita.

9. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 23.2 artikulua zehaztapena.

2.– Hartutako erabakiak, beranduen jota, hiru egun balioduneko epean argitaratuko dira saileko idazkaritzako iragarki oholean eta posta elektronikoz bidaliko zaizkie organoko kide guztiei, betiere datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta. Era berean, sail ataletako koordinatzaileek argitara emango dute, nork bere egoitzako iragarki oholean, kide anitzeko organoek hartutako erabakien zerrenda. Edonola ere, organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete egongo direla ikusgai.

10. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 26.3 artikulua zehaztapena.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da, eta gehienez bi agintaldi bete ahal izango dira segidan.

11. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluan edo Batzorde Iraunkorrean kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, eta, bete ere, 30 eguneko epean beteko du, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu bitartean, bigarren zikloko ikasleek Saileko Kontseiluan dituzten ordezkariak era honetara banatuko dira: bata, master ofizialetako ikasleen ordezkaria izango da; eta, bestea, antzinako ikasketen bigarren zikloko ikasleen ordezkaria, Ikasleen Kontseiluak aukeratua.

## EKONOMIA APLIKATUA II (OGASUN PUBLIKOA ETA ZUZENBIDE FISKALA) SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Ekonomia Aplikatua II (Ogasun Publikoa eta Zuzenbide Fiskala) sailak Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean dauka administrazio egoitza (Agirre lehendakariaren etorbidea, 83-48015 Bilbao).

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikulua zehaztapena.

1.– Saileko kontseilua, zuzendariak, idazkariak, pertsonal irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiak eta irakasle doktore ez-iraunkor guztiek, sailari atxikitako gainerako hiru irakasle eta ikertzaileko bana ordezkari bat, sailak irakasten duen ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari batek eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari batek osatzen dute.

3. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 23.2. artikulua zehaztapena.

2.– Hartutako erabakiak, beranduen jota, hiru egun baliodunen epean argitaratuko dira saileko iragarki oholean eta posta elektronikoz bidaliko zaizkie organoko kide guztiei, betiere datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta. Horretarako, sailak hartutako erabakien zerrenda jasoko



duen ziurtagiria egingo du idazkariak. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete egongo direla ikusgai.

4. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikuluekiko komunztadura.

Saileko Kontseiluan eta Batzorde Iraunkorrean sortzen diren hutsuneak hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiek beteko dituzte hogeita hamar eguneko epean, organoko idazkariari jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, saileko kontseiluan ikasketa horietako bigarren zikloko ikasleen ordezkaria eta masterretako ikasleena txandaka arituko dira, urte batean bat eta bestean, bestea; bigarren zikloko ikasleen ordezkaria ikasleen kontseiluak aukeratuko du.

### UPV/EHUKO EKONOMIA APLIKATUA III (EKONOMETRIA ETA ESTADISTIKA) SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Ekonomia Aplikatua III (Ekonometria eta Estatistika) Sailak Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean (Lehendakari Agirre, 83-48015 Bilbao) dauka administrazio egoitza.

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Saileko kontseilua zuzendariak, idazkariak, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiek osatuko dute. Sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileek ordezkari bat izango dute talde horretako bost kideko edo zatikiko.

Aipatutakoez gain, saileko kontseiluko kide ere izango dira ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7 artikuluekiko komunztadura.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde aurretik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 14.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Oro har, batzorde iraunkorrak kontseiluari laguntzeko batzorde gisa jardungo du, eta kontseiluak onartu edo ezetsiko dituen gaiak eztabaidatu eta horien berri emango du.

Batzorde iraunkorrak beteko ditu, alde batetik, honako arautegi honi jarraituz kontseiluak eskuordetuta dizkion eginkizunak, eta, bestetik, kontseiluak une jakinetan eskuordetzen dizkionak.

Honako hauek dagozkie batzorde iraunkorriari:

a) Urteko txosten ekonomikoa, saileko irakaskuntzaren eta ikerkuntzaren memoria, eta jardueraplana onestea.

b) Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta haien balizko aldaketak esleitzea, UPV/EHUko gobernu kontseiluak onartutako indarreko arautegiari jarraiki.

c) Doktorego tesiak ebaluatu behar dituzten pertsonak izendatzeko proposamenak onartzea legeak baimendutako baldintzetan, bai eta bestelako epaimahaietako kideak izendatzekoak ere.

- d) Irakasleei eta ikertzaileei ikerketa-eginkizunetan eta ekimenetan laguntzea.
- e) Irakasleen irakaskuntza-jarduera motibazioz adieraztea, irakasleei merituak emanaz eta kontratuak berrituz.
- f) Baimena ematea zientzia, teknika edo arte lanak egiteko kontratuak sinatzeko, bere eskumenen eremuan.
- g) Lanpostu berriak eskatzea eta lanpostuek behar dituzten aldaketak proposatzea.
- b) eta g) atalei dagozkien erabakiak saileko kontseiluari helarazi beharrekoak izango dira, beroriek aldatu eta berresteko, nahiz eta exekuta daitezkeen, batzorde iraunkorrak erabaki bezain pronto.

Honako artikulua honetan batzorde iraunkorrari eskuordetutako eginkizunen arabera hartutako erabakiak saileko kontseiluak batzorde iraunkorrak bilera egin ondoren egingo duen lehenengo bileran jarriko dira berresteko, baldin eta, gutxien dela, batzorde iraunkorreko bi kidek edo saileko kontseiluko kideen % 10ak eskatuko balu batzorde iraunkorraren erabakiak argitaratu eta hurrengo lau lanegunen epean.

#### 5. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 19.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehenengo deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Deialdi bion artean, hamar minututako tarte egon beharko da. Organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute bilera edo, bestela, beren ordezkoei.

#### 6. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 21. artikuluekiko komunztadura.

1.– Erabakiak hartu ahal izateko, emandako boto baliodunen gehiengo soila beharko da, Estatutuek, arautegi honek edo gainerako lege xedapenek beste gehiengoren bat eskatzen duten kasuetan izan ezik. Beraz, proposamen bakarria dagoenean, aurrera egingo du kontrako baino aldeko boto gehiago lortzen baditu. Bi proposamen badaude, aldeko boto gehien lortzen dituen onartuko da. Proposamenak bi baino gehiago direnean, emandako botoen gehiengo osoa lortzen duena onartuko da; edo, lehenengo botazioan boto gehien lortu dituzten bi proposamenak hartuta, bigarren botazioan boto gehien lortzen dituen. Berdinketa izanez gero, berriro egingo da botazioa; orduan ere berdinketa izanez gero, organoko buruaren kalitateko botoak erabakiko du.

2.– Nolanahi ere, batzorde iraunkorraren erabakiak baliozkoak izango badira, gutxienera balioz emandako botoen lau bostenen aldeko botoa beharko da.

3.– Botazioa isilpekoa izango da kide anitzeko organoko kideren batek hala eskatzen duenean, eta pertsonen buruzkoa denean beti izango da isilpekoa.

4.– Aurkako botoa eman eta aktan hala jasoarazten dutenek edo abstenitzen direnek ez dute erantzukizunik izango kide anitzeko organoak hartutako erabakietan. Horretarako, botazioa isilpekoa denean, organoko idazkariari eman beharko zaio boto txartela botazioaren unean. Boto txartel hori aktari erantsiko zaio.

5.– Hauteskunde prozesuetan izan ezik, botoa kide anitzeko organoko beste kide baten esku utzi ahal izango da. Botoen eskuordetzea idatziz gauzatu beharko da eta organo bilduko idazkariari aurkeztuko zaio kide anitzeko organoaren bilera hasi baino lehen. Kide anitzeko organoko kide bakoitzak boto bakar bat izan dezake eskuordetuta. Botoa eskuordetzeko idatzia bilerako aktari erantsiko zaio.

6.– Kide anitzeko organoko kideek aktan jasoaraz dezakete euren boto partikularra eta boto hori emateko arrazoiak. Halakorik egiteko asmoa izanez gero, bileran bertan adierazi beharko dute eta idatziz aurkeztu, 48 ordutako epean, aktan jasota gera dadin. Bozkatutakoak unibertsitateko beste organo batzuei egindako proposamenak badira, kideen boto partikularrak beti aurkeztuko dira proposamenekin batera. Bestalde, beren parte hartzea edo proposamena aktan hitzez hitz jasotzea eskatzeko eskubidea dute organoko kideek. Horretarako, idatziz aurkeztu behar dute testua eskaera egin eta segituan edo, bestela, organoko buruak adierazitako epean.

7. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 26.3. artikuluekiko komunztadura.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtetakoa izango da eta gehienez hiru agintaldi beteko ahal ditu segidan.

8. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikuluekiko komunztadura.

Saileko kontseiluan edo batzorde iraunkorren kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, gehienera ere hiru egunetako epean, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

9. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikuluekiko komunztadura.

Saileko kontseiluko kide titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez hautetsiak bete ahalko du haren lekua. Ordezkapena gauzatzeko, halako egoera batean dagoen titullarrak jakinaren gainean jarri beharko du kide anitzeko organoko idazkaria, gutxienez organo bilduak bilera egin baino 72 ordu lehenago. Idazkaria ez balego, organoko buruari jakinarazi beharko dio. Ordezkatutako kideak ezin izango du botoa eskuordetu.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, saileko kontseiluan ikasketa horietako ikasleek eta masterretako ikasleen ordezkariak ikasle kopururik handiena ordezkatzeko duenak gauzatu du. Irakaskuntza zaharreko bigarren ziklotako ikasleen ordezkaria ikasleen kontseiluak hautatu du.

## UPV/EHUKO ESKULTURA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Eskultura sailak UPV/EHUREn Bizkaiko campuseko Arte Ederren Fakultatean du egoitza (Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa, Bizkaia).

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Saileko kontseilua zuzendariak, idazkariak, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiek osatuko dute. Hauez gain, sailari atxikitako gainerako pertsonal irakasle eta ikertzailearen ordezkari batek.

Aipatutakoez gain, saileko kontseiluan irakaskuntza ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bat, xedapen iragankorrean xedaturikoa ukitu barik, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat egongo dira.

3. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko II. atalarekiko komunztadura.

Eskultura sailak batzorde iraunkor bat izango du, eta sailen oinarrizko arautegiak II. atalean zehaztutakoari jarraituta arautuko da.

4. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 19.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehenengo deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean 15 minututako tartea egongo da. Organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute bileran edo, bestela, haien ordezkoez.

5. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikuluekiko komunztadura.

Saileko kontseiluan edo batzorde iraunkorrean kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, gehienera ere hamabost egunetako epean, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

2012-2013 ikasturterako, lizentziaturaren bigarren zikloa irakasten deneko azken ikasturtea izanik, bi ordezkari izango dira. Bata masterretakoa eta bestea lizentziaturaren bigarren ziklokoa (azken hau ikasleen kontseiluak hautatu behar duelarik). Hurrengo ikasturtetik aurrera, ordezkaritza masterreko ikasle bat izango da.

### UPV/EHUKO MEDIKUNTZA ETA KIRURGIA ESPEZIALITATEAK SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak sailak Bizkaiko Campuseko Medikuntza eta Odontologia fakultatean du administrazio egoitza.

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Saileko kontseilua zuzendariak, idazkariak, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiek osatuko dute. Sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileek ordezkari bat izango dute talde horretako bost kideko edo zatikiko.

Aipatutakoez gain, ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bik eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari batek osatuko dute kontseilua.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7 artikuluekiko komunztadura.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko II. atalarekiko komunztadura.

Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak sailak batzorde iraunkor bat izango du, eta sailen oinarrizko arautegiak II. atalean zehaztutakoari jarraituta arautuko da.

5. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 21.4. artikuluekiko komunztadura.

4.– Kide anitzeko organoko kide bakoitzak boto bakar bat izan dezake eskuordetuta. Eskuordetzea idatziz adierazi eta idatzia bilerako aktari erantsiko zaio.

6. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 23. artikuluekiko komunztadura.

1.– Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako erabakien fede eman eta ziurtagiriak egingo ditu.

2.– Saileko Kontseiluak hartzen dituen erabakiak saileko iragarki oholetan emango dira argitara, beranduen jota hiru egun baliodunen epean eta, betiere, datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete egongo direla ikusgai.

7. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulurekiko komunztadura.

Saileko Kontseiluan eta Batzorde Iraunkorrean sortzen diren hutsuneak hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiek beteko dituzte hamabost eguneko epean, organoko idazkariari jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu bitartean, bigarren zikloko ikasleek saileko kontseiluan dituzten ordezkariak era honetara banatuko dira: bat, master ofizialetako ikasleen ordezkaria izango da; eta bestea, antzinako ikasketen bigarren zikloko ikasleen ordezkaria, ikasleen kontseiluak aukeratua.

## UPV/EHUKO IKASKETA KLASIKOAK SAILEKO ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1 artikuluen zehaztapena.

1.– Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailak Letren Fakultatean du administrazio egoitza (Unibertsitateko ibilbidea 5, 01006 Gasteiz).

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10.1 artikuluen zehaztapena.

1.– Saileko Kontseilua zuzendariak, idazkariak, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek, irakasle ez-iraunkor doktore guztiek, eta sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari batek osatzen dute.

Aipatutakoez gain, ziklo bakoitzeko ikasleen bi ordezkari eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari batek osatuko dute kontseilua.

3. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 13. artikuluen zehaztapena.

Ikasketa Klasikoak saileko Batzorde Iraunkorrek kontseiluko kide hauek osatuko dute: zuzendariak (batzordeko burua izango da), idazkariak eta irakasle eta ikertzaileen bederatzi ordezkari. Ahal dela, jakintza arlo guztietako ordezkariak egongo dira.

2.– Gainera, ikasleen ordezkari bat eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat egongo dira Batzorde Iraunkorrean, biak ere kontseiluko kideen artean hautatuak.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 14.1. artikuluen zehaztapena.

1.– Batzorde Iraunkorrek eginkizun hauek izango ditu eskuordetuta:

a) Irakasleei irakats betebeharrak esleitzea, eta hor egon daitezkeen aldaketak ere antolatzea.

b) Irakasgaien oinarrizko programak ezartzea, kasuan kasuko ikasketa planaren barruan.

c) Hirugarren zikloko, doktoregoko eta gainerako ikasketetako (unibertsitateko berezko titulu-takoko ikasketak izan edo ez) eskaintzak proposatzea, eta bere ardurapeko programen ezarpen eta koordinazio akademikoaz arduratzea. Edonola ere, doktoregoko programetako irakats zama esleitu aurretik, kasuan kasuko saileko kontseiluaren iritzia entzun beharko du.

d) Doktorego tesietako eta bestelako epaimahaietako kideak izendatzeko proposamenak onartzea, legeak baimentzen dituen baldintzetan.

e) Irakasleen eta ikertzaileen ikerketa jarduerak eta ekimenak bultzatzea.

f) Plaza berriak eskatzea eta saileko langileen lanpostuen zerrendan egin beharreko aldaketak proposatzea.

g) Irakasleen lanari buruzko txosten arrazoituak egitea, irakaskuntza merezimenduak aitortzeari eta kontratuak berritzeari begira.

h) Sailaren eskumenen esparruan, Gobernu Kontseiluak onartutako arautegiarekin bat, Estatuetako 97. artikuluan xedatutako kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren, giza zientzien edo artearen alorreko lanak egiteko.

i) Venia docendi-ak emateari buruzko aurretiko txostena egitea.

j) Beharrezko bitartekoak sortu eta ekimenak egitea, unibertsitate jardunaren kalitatea sustatu eta hobetzeko, baita gestio eraginkorra bermatzeko ere Europako, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko programen baitan, erakundeek ezarritako ebaluazio prozesuak bultzatuz eta haietan parte hartuz.

5. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 18.2. artikulua zehaztapena.

2.– Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute, beren eginkizunak aurrera eramateko, saileko idazkaritzan dauden dokumentuak eta informazioa eskatu eta eskuratzeko, aldez aurretik eskari idatzia eginda idazkari akademikoari. Idazkariak gehienez ere 48 orduko epean emango du eskatutako informazioa, eskaria jasotzen denetik kontatzen hasita.

6. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 19.1 artikulua zehaztapena.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean 15 minututako tarte egon behar da. Organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute bileran edo, bestela, haien ordezkoez.

7. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 23. artikulua zehaztapena.

1.– Idazkariak kide anitzeko organoak hartutako erabakien fede eman eta ziurtagiriak egingo ditu.

2.– Saileko Kontseiluak hartzen dituen erabakiak saileko iragarki oholetan emango dira argitara, beranduen jota hiru egun balioduneko epean, eta posta elektronikoz bidaliko zaizkie kontseilukide guztiei, betiere, datuak babesteko legeria errespetatuta. Edonola ere, organoko idazkariak eta buruak bermatu egin behar dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete gongo direla ikusgai.

8. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 26.3. artikulua zehaztapena.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da. Gehienez bi agintaldi bete ahal izango ditu segidan zuzendariak.

9. artikulua.– Hauteskuendeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluan eta Batzorde Iraunkorrean sortzen diren hutsuneak hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiek beteko dituzte hamabost eguneko epean, organoko idazkariari hutsunearen berri ematen zaionetik kontatzen hasita.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu bitartean, bigarren zikloko ikasleek saileko kontseiluan dituzten ordezkariak era honetara banatuko dira: bat, master ofizialetako ikasleen ordezkaria izango da; eta bestea, antzinako ikasketen bigarren zikloko ikasleen ordezkaria, Ikasleen Kontseiluak aukeratua.

### UPV/EHUKO FISIKA TEORIKOA ETA ZIENTZIAREN HISTORIA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1 artikulua zehaztapena.

1.– Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia Sailak Zientzia eta Teknologia Fakultatean du egoitza (Sarriena auzoa, z/g - 48940 Leioa).

2. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

3. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 21.4 artikulua zehaztapena.

4.– Kide anitzeko organoko kide bakoitzak boto bakarra izan dezake eskuordetuta. Organoko kideek idatziz adierazi behar dute botoa eskuordetu egin dutela, eta idatzi hori bilerako aktari erantsiko zaio.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 23.2 artikulua zehaztapena.

2.– Organoak hartzen dituen erabakiak saileko iragarki oholean emango dira argitara, beranduen jota hiru egun baliaduneko epean eta, betiere, datuak babesteko legeriak dioena errespetatuta. Edonola ere, organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete egongo direla ikusgai.

5. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluan edo Batzorde Iraunkorrean kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, eta, bete ere, 3 eguneko epean beteko du, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

6. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluko edo Batzorde Iraunkorreko kide titular bat kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsia izango da haren behin-behineko ordezkaria, betiere, titularrak urtebete edo gehiago utziko badu kargua bete gabe. Ordezkapena gauzatu ahal izateko, horrelako egoeraren batean dauden titularrek horren berri eman beharko diote saileko zuzendariari, arrazoiak azalduta eta egiaztagiria erantsita. Egoera horren berri posta elektronikoz eman ahal izango zaio saileko zuzendariari.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleen ordezkariak eta masterretako ikasleen txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigarren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratuko du.

UPV/EHUKO IMMUNOLOGIA, MIKROBIOLOGIA ETA PARASITOLOGIA SAILAREN  
ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikulurekiko komunztadura.

1.– Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia sailak Bizkaiko campuseko Medikuntza eta Odontologia Fakultatean du administrazio egoitza.

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 8.2. artikulurekiko komunztadura.

2.– Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia sailak hiru sail atal ezarri ditu. Honako hauek dira:

a) Zientzia eta Teknologia fakultateko sail atala, egoitza fakultate honetan bertan duena.

b) Farmazia fakultateko sail atala, egoitza fakultate honetan bertan duena.

c) Medikuntza eta Odontologia fakultateko sail atala, egoitza fakultate honetan bertan duena.

3. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikulurekiko komunztadura.

1.– Saileko Kontseilua zuzendariak, idazkariak, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek, irakasle ez-iraunkor doktore guztiek, eta sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari batek osatzen dute.

Aipatutakoez gain, ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari batek eta administrazio eta zerbitzuetako langile guztien ordezkari batek osatuko dute kontseilua.

4. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde aurretik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

5. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 13. artikulurekiko komunztadura.

Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia sailaren batzorde iraunkorrak, kontseiluko kideek osaturik, zuzendaria izango du buru eta idazkaria, sail koordinatzaileak eta pertsonal irakasle eta ikertzailearen sei ordezkari izango ditu osakide; azken horietatik, bost pertsonal irakasle eta ikertzaile iraunkorraren eta pertsonal irakasle eta ikertzaile doktore ez iraunkorraren artetik hautatuko dira eta seigarrena sailari atxikitako gainontzeko pertsonal irakasle eta ikertzailearen artetik.

Honez gain, batzorde iraunkorreko kide ere izango dira ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari bat, kasu biotan, kontseiluko kideen artetik hautatuta.

Batzorde iraunkorreko ordezkariak hautatzeko era eta ordezkari izateari uzteko arrazoiak sailen oinarrizko arautegian ezarritakoak izango dira.

6. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 14.1. artikulurekiko komunztadura.

1.– Batzorde iraunkorrak eskumenik izango du tramiterako gaiak ebazteko, bai eta kontseiluak unean une ordezkari ahal lizkiokeenak eta kontseiluak eskuordetzaz espresuki eman dizkion hauek ere:

a) Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta haien balizko aldaketak esleitzea, UPV/EHUko gobernu kontseiluak onartutako indarreko arautegiari jarraiki.



- b) Kasuan kasuko ikasketa-planaren barruan, irakasgaien oinarrizko programak ezartzea.
- c) Masterreko, doktoregoko eta gainerako ikasketetako eskaintzak proposatzea, unibertsitateko berezko tituluetakako ikasketak izan edo ez.
- d) Doktorego-tesiak ebaluatu behar dituzten pertsonak izendatzeko proposamenak onartzea legeak baimentzen dituen baldintzetan, bai eta bestelako epaimahaietako kideen izendapenak onartzea ere.
- e) Irakasleen eta ikertzaileen ikerketa-jarduerak eta ekimenak bultzatzea eta koordinatzea.
- f) Bere pertsonalaren lanpostuen zerrendaren barruko lanpostu berriak eskatzea eta lanpostuok behar dituzten aldaketak proposatzea, gerora saileko kontseiluak berretsi behar dituelarik.
- g) Irakasleen irakaskuntza-jarduera motibazioz adieraztea, irakasleei merituenak emanaz eta kontratuak berrituz.
- h) Bere eskumenen esparruan, gobernu kontseiluak onartutako arautegiarekin bat, Estatutuetako 97. artikuluan xedatutako kontratuak egiteko baimena ematea, zientziaren, teknikaren edo artearen alorreko lanak egiteko.
- i) Hala balegokio, venia docendi-ren emateari buruz aurrez informatzea.

7. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 18.2. artikuluekiko komunztadura.

2.– Kide anitzeko organoetako kideek eskubidea dute, beren eginkizunak aurrera eramateko, saileko idazkaritzan dauden dokumentuak eta informazioa eskatu eta eskuratzeko. Horretarako, idatzizko eskaria aurkeztu beharko diote saileko zuzendariari edo idazkariari. Eskatutako informazioa eta dokumentazioa bidaliko dute pertsona horiek, bost egunen epean, gehienez.

8. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 19.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehenengo deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean 15 minututako tarte egongo da. Organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute bileran edo, bestela, haien ordezkoez.

9. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 21.4. artikuluekiko komunztadura.

4.– Botoa utzi ahal zaio saileko kontseiluko beste kideren bati. Eskuordetzea idatziz adierazi eta idatzia bilerako aktari erantsiko zaio.

10. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 23.2. artikuluen zehaztapena.

2.– Organo bilduetako idazkariak (saileko kontseilu, kontseiluko batzorde iraunkor eta ataleko kontseiluetakoak), hiru lanegunen epean, argitaratu beharko ditu kasuan kasuko organoak hartutako erabakiak saileko iragarki-taulan eta hiru ataletako iragarki-tauletan, azken kasu honetan, koordinatzaileen bidez, betiere datuak babesteko indarrean dagoen arautegia zainduta Edonola ere, organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete egongo direla ikusgai. Organo bilduko idazkariak posta elektronikoen bidez igorriko dizkio sail ataletako koordinatzaileei hartutako erabakiak eta

koordinatzaileok ataleko kideei jakinaraziko dizkie, bai posta elektronikoaz bai sarrera orokorreko plataforma edo karpeta birtualetan ezarriz.

11. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 26.3. artikuluekiko komunztadura.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtetakoa izango da. Egin ahal izango da bigarren agintaldi bat jarraian. Hirugarren edo geroagoko agintaldietarako, berriz, kandidatuak, gutxien dela, saileko kontseiluko kideen botoen erdia baino gehiago lortu beharko ditu.

12. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Saileko kontseiluan edo batzorde iraunkorrean kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, gehienera ere zazpi egunetako epean, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontaktzen hasita.

13. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

Saileko kontseiluko edo batzorde iraunkorreko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsia izan ahalko da haren behin-behineko ordezkaria; horretarako, arrazoiak egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira saileko idazkaritzan, kide anitzeko organoaren bilera baino gutxien dela 72 ordu lehenago.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleek izango duten ordezkaria eta masterretako ikasleena txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigaren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratuko du.

## UPV/EHUKO EUSKAL HIZKUNTZA ETA KOMUNIKAZIOA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa sailaren egoitza administratiboa Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean dago (Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa, Bizkaia).

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10. artikulua zehaztapena.

1.– Hauek izango dira Saileko Kontseiluaren osakideak: zuzendaria, idazkaria, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiak eta irakasle ez-iraunkor doktore guztiak, sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat bost laguneko multzo bakoitzeko, sailak irakaskuntza ematen duen ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bi eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2.– Irakasle eta ikertzaileen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkarien agintaldia lau urtekoa da. Ikasleen ordezkarien agintaldia, berriz, bi urtekoa izango da.

3.– Sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkariak irakasle eta ikertzaile horien artean eta artetik aukeratuko dira.

4.– Graduak eta masterreko ikasleen ordezkariak ikasleen kontseiluan aukeratuko dituzte, ikasleen kontseiluaren arautegian zehazten den prozedurari jarraiki.

5.– Doktoregoko ikasleen ordezkaria saileko zuzendariak deituta bi urterik behin, abenduan, egingo den bileran aukeratuko da bozketaz. Bilera horretara saileko graduondoko programetan matrikulatutako ikasle guztiei deituko zaie. Horretarako, bilerara deitu beharreko ikasleen errolda eskatuko dio saileko zuzendariak hala dagokion zerbitzuari.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 13. artikulua zehaztapena.

Batzorde Iraunkorraren osakerari, kideen hautaketari eta kide izateari uzteko arrazoiei dagokienez, Sailen Oinarrizko Arautegian zehaztutakoa aplikatuko da. Bermatuko da campus bakoitzari atxikitako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat gutxienez egongo dela batzordean.

5. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 14.1. artikulua zehaztapena.

Batzorde Iraunkorrek Saileko Kontseiluaren eginkizun guztiak beteko ditu, hauek izan ezik: zuzendaria hautatzea, Sailaren Arautegia onartzea eta irakasleei irakats betebeharrak esleitzeko proposamena behin betiko onartzea. Edozelan ere, batzordeak ezin izango du erabakirik hartu gai batez Batzorde Iraunkorreko kide gehienek edo Saileko Kontseiluko kideen herenak hala eskatzen badute. Halakoetan Kontseiluari aurkeztu beharko zaio kasuan kasuko aztergaia.

6. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 19.1. artikulua zehaztapena.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Deialdi bion artean, hamabost minutuko tarte egon beharko da. Nolanahi ere, organoa balioz eratzeko, ezinbestekoa izango da organoko burua eta idazkaria bileran egotea edo, bestela, beren ordezkioak.

7. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 21.4. artikulua zehaztapena.

4.– Hauteskundeetan izan ezik, onartu egiten da botoa eskuordetzeko aukera. Boto eskuordetzeak idatziz jaso behar dira, eta bilerako aktari erantsi. Organoko buruari posta elektronikoz jakinarazi beharko zaio botoa eskuordetzeko asmoa, eta nori eskuordetuko zaion botoa.

8. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 23.2. artikulua zehaztapena.

2.– Erabakiak hiru egun balioduneko epean argitaratu beharko dira beranduen jota, eta datuak babesteko legeria errespetaturik betiere. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxienez hilabete bat egongo direla ikusgai. Erabakiak Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko iragarki oholean argitaratuko dira.

9. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 26.3. artikulua zehaztapena.

3.– Zuzendariaren agintaldia lau urtekoa izango da, eta gehienez bi agintaldi beteko ditu segidan.

10. artikulua.– UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

2.– Hautetsiak kargua uzten duenean zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua. Ordezkapena hamabost egun baliodun iragan aurretik gauzatuko da, idazkariak jakinarazi duenetik kontatzen hasita.

11. artikulua.– UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikulua zehaztapena.

3.– Halaber, titularrak kanpoan edo gaixo sei hilabetetik gora egongo direla aurreikusten bada, ordezkoei haien tokia hartuko dute berriz itzuli arte. Ordezkapena gauzatzeko, halako egoera batean dagoen titularrak kide anitzeko organoko buruari jakinarazi beharko dio.

#### UPV/EHUKO MATEMATIKA APLIKATUA, ESTADISTIKA ETA IKERKUNTZA OPERATIBOA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa Sailak Zientzia eta Teknologia Fakultatean du administrazio egoitza (Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa).

2. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde aurretik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituta.

3. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 19.1 artikulua zehaztapena.

1.– Kide anitzeko organoak balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo absolutua egotea lehen deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehen eta bigarren deialdien artean 15 minutuko tarte egongo da. Edonola ere, beharrezkoa izango da organoko burua eta idazkaria egotea, edo, bestela, horien ordezkoei.

4. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 21.4 artikulua zehaztapena.

4.– Botoa kide anitzeko beste kide bati eskuordetu ahal izango zaio, betiere, bertaratuko ez denak bajaran egoteagatik edo arrazoi akademikoengatik ezin bertaratu izana egiaztatzen bada. Kide anitzeko organoko kide bakoitzak boto bakarra izan dezake eskuordetuta. Eskuordetzea idatziz adierazi eta idatzia bilerako aktari erantsiko zaio.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleek izango duten ordezkaria eta masterretako ikasleena urtero txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigaren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratu du.

#### UPV/EHUKO HEZKUNTZARAKO IKERKUNTZA ETA DIAGNOSI METODOAK SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak sailak Filosofia eta hezkuntza zientzien fakultatean du administrazio egoitza (Tolosarako ibilbidea 70, 20018 Donostia).

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 8. artikulua zehaztapena.

Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak sailak bi sail atal ezarri ditu:

a) Gipuzkoako campuseko sail atala, campus honetako ikastegiei atxikita dagoen Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak saileko pertsonal irakasle eta ikertzailea bertako kide izanik eta egoitza Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean duelarik.

b) Bizkaiko campuseko sail atala, campus honetako ikastegiei atxikita dagoen Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak saileko pertsonal irakasle eta ikertzailea bertako kide izanik eta egoitza Bilboko Irakasleen eskolan duelarik.

3. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Saileko Kontseilua zuzendariak, idazkariak eta Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak sailari atxikitako pertsonal ikertzaile eta irakasle guztiak.

Aipatutakoez gain, saileko kontseiluko kide ere izango dira ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

4. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.5. artikuluekiko komunztadura.

5.– Masterreko ikasleen ordezkariak ikasleen kontseiluak aukeratuko du kasuan kasuko arautegiak ezarritakoarekin bat etorrira.

5. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7 artikuluen zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

6. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 13. artikuluekiko komunztadura.

Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak saileko batzorde iraunkorrak, kontseiluko kideek osaturik, zuzendaria izango du buru eta idazkaria, sail ataletako koordinatzaileak eta pertsonal irakasle eta ikertzailearen bederatzi ordezkari izango ditu osakide.

Honez gain, batzorde iraunkorreko kide ere izango dira ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari bat, kasu bietan, kontseiluko kideen artean hautatuta.

Batzorde iraunkorreko ordezkariak hautatzeko era eta ordezkari izateari uzteko arrazoiak sailen oinarrizko arautegian ezarritakoak izango dira.

7. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 19.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehenengo deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Deialdi bion artean hamabost minututako tartea egongo da. Organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute bileran edo, bestela, beren ordezkoez.

8. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 23.2. artikuluekiko komunztadura.

2.– Erabakiak hiru egun balioduneko epean argitaratu beharko dira beranduen jota, eta datuak babesteko legeria errespetaturik betiere. Organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxienez dela hilabete egongo direla ikusgai. Erabakitakoaren publikitatea saileko idazkaritzaren iragarki-oholaren bidez egingo da.

9. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikuluekiko komunztadura.

Saileko kontseiluan edo batzorde iraunkorrean kideren batek kargua uzten duenean, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiak beteko du haren lekua, gehienera ere zazpi egunetako epean, organoko idazkariari kargua hutsik geratu dela jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

10. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikuluekiko komunztadura.

Saileko kontseiluko edo batzorde iraunkorreko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsia izan ahalko da haren behin-behineko ordezkoa; horretarako, arrazoiak egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dira saileko idazkaritzan, kide anitzeko organoaren bilera baino gutxien dela 15 egun lehenago.

## XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleen ordezkariak eta masterretako ikasleen txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigarren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratuko du.

## UPV/EHUKO GIZARTE PSIKOLOGIA ETA PORTAERA ZIENTZIEN METODOLOGIA SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1. artikuluen zehaztapena.

1.– Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak Psikologia Fakultatean du administrazio egoitza, Tolosa hiribidea 70, 20018 Donostia.

2. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 8. artikuluen zehaztapena.

Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Sailak Bizkaiko Campusean du sail atal bat, egoitza Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan duena. Sail atal horretakoak dira campus horretan eskolak ematen dituzten irakasle guztiak.

3. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 10.1 artikuluen zehaztapena.

1.– Hauek dira Saileko Kontseilua osatzen dutenak: zuzendaria, idazkaria, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiak eta irakasle doktore ez-iraunkor guztiak, sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat, ikasleen ordezkari bat ziklo bakoitzeko eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

4. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluen zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituta.

5. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 13. artikuluen zehaztapena.

Hauek izango dira Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia Saileko batzorde iraunkorra –kontseiluko kideek osatua– osatuko dutenak: zuzendaria, batzordeburu izango dena; idazkaria, sail ataleko koordinatzailea, gizarte psikologia arloko hiru irakasle, portaera zientzien metodologia arloko hiru irakasle.

Batzorde iraunkorreko kide izango dira, era berean, ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren ordezkari bat, biak kontseiluko kideen artean aukeratuak.

Batzorde Iraunkorreko ordezkariak hautatzeko era eta izaera hori galtzeko zioak Sailen Oinarrizko Arautegiak ezarritakoak izango dira.

6. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 21.4 artikulua zehaztapena.

4.– Kide anitzeko organoko kide bakoitzak boto bakarra izan dezake eskuordetuta. Eskuordetzea idatziz adierazi eta idatzia bilerako aktari erantsiko zaio.

7. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikulua zehaztapena.

Saileko Kontseiluan eta Batzorde Iraunkorrean sortzen diren hutsuneak hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsiek beteko dituzte 30 eguneko epean, organoko idazkariari jakinarazten zaionetik kontatzen hasita.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleek izango duten ordezkaria eta masterretako ikasleena txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigaren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratuko du.

#### UPV/EHUKO KIMIKA ORGANIKOA II SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen Oinarrizko Arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Kimika Organikoa II Sailak Zientzia eta Teknologia Fakultatean du administrazio egoitza, Sarriena Auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia).

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleek izango duten ordezkaria eta masterretako ikasleena txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigaren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratuko du.

#### UPV/EHUKO SOZIOLOGIA II SAILAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 3.1. artikulua zehaztapena.

1.– Soziologia II sailaren egoitza administratiboa Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean dago (Sarriena auzoa z/g 48940 Leioa, Bizkaia).

2. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 10.1. artikulua zehaztapena.

1.– Saileko kontseilua zuzendariak, idazkariak, irakasle eta ikertzaile iraunkor guztiek, irakasle ez-iraunkor doktore guztiek, eta sailari atxikitako gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari batek osatzen dute.

Aipatutakoez gain, saileko kontseiluko kide ere izango dira ziklo bakoitzeko ikasleen ordezkari bat eta administrazio eta zerbitzu-tako langileen ordezkari bat.

3. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7 artikulua zehaztapena.

Saileko zuzendaria hautatzeko, botoa alde zuzenetik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

4. artikulua.– Sailen oinarrizko arautegiko 19.1. artikuluekiko komunztadura.

1.– Kide anitzeko organoa balioz eratzeko, beharrezkoa da kideen gehiengo osoa egotea lehenengo deialdian, edo kideen heren bat egotea, gutxienez, bigarren deialdian. Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean 15 minututako tartea egongo da. Organoko buruak eta idazkariak beti egon behar dute bileran edo, bestela, haien ordezkoez.

5. artikulua.– Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikuluekiko komunztadura.

Saileko Kontseiluko titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean arrazoi justifikaturen bategatik, zerrenda bereko hurrengo kide ez-hautetsia izan ahalko da haren behin-behineko ordezkoa; horretarako, arrazoiak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dira saileko Idazkaritzan, kide anitzeko organoaren bilera baino 72 ordu lehenago gutxienez.

#### XEDAPEN IRAGANKORRA

Antzinako ikasketak guztiz desagertu arte, Saileko Kontseiluan ikasketa horietako ikasleen ordezkariak eta masterretako ikasleenak urtero txandaka arituko dira ordezkari lanetan; bigarren zikloko ikasleen ordezkaria Ikasleen Kontseiluak aukeratuko du.